

BILBOKO HAUR ETA NERABEEN UDAL KONTSEILUA

CONSEJO DE LA INFANCIA Y ADOLESCENCIA DE BILBAO
2022-2023

Bigarren lan-batzordearen akta



HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUAKO BIGARREN LAN-BATZORDEAREN AKTA**2023-02-08**

II. Haur eta Nerabeen Udal Plana Bilboko Udal Txakurtegi Zaharrean aurkeztu ondoren, joan den asteazkenean, urtarrilaren 8an, Bilboko Haur eta Nerabeen Udal Kontseilua lan-batzordean bildu zen.

Ikasturteko lanerako lehen osoko bilkuran herritarren segurtasuna izan zen aukeratutako gaia, Udaltzaingoak proposatutakoa, eta, horregatik, lehen lan-bilera Miribillako ertzain-etxean egin zen.

Batzordea 9: 30ean hasi zen. Han zeuden hainbat agente zain, eta haiek lagundu zieten gimnasia, lan-dinamika egiteko. Oinetakoak erantzi ondoren, kontseiluko kideak tatamian eseri ziren, azalpenei adi-adi.

Bi agente arduratu ziren bertan lan egiten duten pertsoneri, egiten diren lan eta zereginari, nola antolatzen diren eta abarri buruzko aurkezpen bat egiteaz. Jarraian, udaltzainek hiribilduko bizikidetza onaren alde egiten duten lana azaldu zuten, baita hori zein garrantzitsua den ere.

Gai horri helduz, aurkezpena egin zuten agenteek bizikidetza eta herritarren segurtasuna hobetzeko proposamenak egiteko eskatu zioten kontseiluari.



Aurkezpena egin ondoren, Itxasok azaldu zuen zazpi taldetan lan egingo zela, honela: Hasiera batean, identifikatu zein gaik sortzen duen herritarren segurtasunik eza handiena kontseilarien artean. Hortik ateratzen den zerrendaren ondoren, ikusi zein diren kezkarrienak haientzat eta, azkenik, ikusi zer egin dezaketen haiek herritar gisa.



Aurkezpena egin ondoren, Itxasok azaldu zuen zazpi taldetan lan egingo zela, honela: Hasiera batean, identifikatu zein gaik sortzen duen herritarren segurtasunik eza handiena kontseilarien artean. Hortik ateratzen den zerrendaren ondoren, ikusi zein diren kezkarrienak haientzat eta, azkenik, ikusi zer egin dezaketen haiek herritar gisa.

Ordubetez aritu ziren lanean, eta horixe izan zen antzemandako gai kezkarrienak bateratu zituen:

- Zenbait kaletako puntu ilunek eta argi-faltak segurtasunik eza sortzen dute
- Kanean droga dago, jakina eta erraza da bertara iristea
- Kezka sortzen duen jende arraroa dago (Maiatzaren 2ko kalea, Zorrotza, etab.)
- Eremu batzuetan (Sarrikon, Basurton) gero eta lapurreta eta ebasketa gehiago daudela jabetzea.
- Arma zuriekiko eskuragarritasuna: arma horiekiko mehatxu-bizipenak, kaleetan ikusten dira
- Botelloia bezalako uneetan, mozkorrek beldurra ematen diete.
- Bizikleten lapurreta kalean
- Zikinkeria gertaera jakin batzuen ondoren. Adibidez, jai edo ekitaldi jendetsuen ondoren
- Poliziaren kanpainak bullying-aren aurka egiteko

- Ikastetxeetan defentsa pertsonalari buruzko prestakuntza ematea
- Auzoren batek poliziarri deitzen dionean, batzuetan denbora asko behar izaten dute etortzeko.
- Autoen abiadura oso azkarra da zenbait bidetan. Abiadura kontrolatzea.
- Desfibriladoreak eta nola erabili
- Poliziaren eta anbulantzien arteko koordinazioa hobetu
- Lapurreta asko daude zenbait lekutan. Zaintza falta
- Indarkeria matxista eta eraso sexista asko daude (ziztaden eta jaien gaia)
- Erasoak kaleetan; lapurtzeko jipoiak, adibidez, gero eta ohikoagoak
- Zorrotzan autoak, leihatilak, ispiluak eta abar puskatzen dituzte.
- Polizia-txakur gehiago kaleetan
- Poliziak zigortzea txakurren kakarik jasotzen ez duten pertsonak. Isun gehiago

Ekarpen guztiak bateratu ondoren, taldea 4 taldetan antolatu zen, eta bertaratutako agenteek instalazioak bisitatu zituzten. Bisitaldian hainbat gune ikusi ahal izan zituzten, hala nola kontrol-zentroa, genero-indarkeriaren kasuak kudeatzen diren espazioa, ikasketa-gelak, bulegoak, tiro-galeria eta autoen flota.



Udaltzaingoen emandako oparia jasota, agur esan zuten hurrengo bilerara arte.

